



Esp. zk.: SUBV_EVAL_INDIV/2021/10

Autokontsumorako eguzki-plakak jartzeko dirulaguntza-deialdia

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAOn, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

| | |
|-------------------------------------|--|
| 1. Administrazio deitzailea: | IRUÑEKO UDALA |
| 2. Organo emailea: | Gobernu Estrategiko, Merkataritza eta Turismoko Zinegotzi Ordezkaría |
| 3. Alor kudeatzailea: | Proiektuak eta Obrak, Mugikortasuna eta Jasangarritasuna |
| 4. Instrukzio-organoa: | Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa |

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoko instalazioetarako inbertsioak egiteko Iruñeko udal-mugartean dauden eraikinetan, betiere koadro honen B.3 puntuan adierazitako tipologiekin bat.

2. Deialdiaren helburua:

Energia zentzuz erabil dadin sustatzea, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak hartuta, eta energia berriztagarrien garapena sustatzea Iruñeko udal-mugartean.
Alkatetzak 2019ko ekainaren 21ean emandako Dekretu bidez –DAL 21-JUN-19 (11/AL)– onetsi zuen Udal Antolaketari buruzko Dekretuan aditzera ematen da Iruñeko Udaleko Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorreko funtzioetako bat dela herritarrei bidea erraztea energia berdeko instalazioak jartzeko.

3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak:

Instalazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntzen xede izanen dira Iruñeko udalerrian autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoko honako instalazio hauek sortzeko inbertsioak: isolatuak (sarera konektatu gabeak) zein 900/2015 Errege Dekretuan eta 15/2008 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin bat autokontsumorako bideratutakoak. Bi instalazio-mota horiek energia metatzeko sistema eduki ahalko dute.

b) Instalazioak jarraian adierazitako TIPOLOGIA batekin bat etorri behar du:

b.1) Banakako kontsumorako instalazio fotovoltaikoak (b.1 MOTA): Energia elektrikoaren hornidura-kontratu bakar bati lotutako autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dira.

b.2) Kontsumo kolektiborako instalazio fotovoltaikoak (b.2 MOTA). Energia elektrikoaren hornidura-kontratu biri edo gehiagori lotutako autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dira.

c) Instalazioak iraunkorra izan beharko du.

Diruz lagundutako instalazioak egiteko epea 2021eko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartekoa izanen



BANAKAKO EBALUAZIOA

da. Diruz lagundutako instalazioak egina egon beharko du, beranduenez jota, 2021eko urriaren 31rako. Hau da, data horretan instalazio guztiek eginda, fakturatuta eta legeztatuta egon beharko dute.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

BAI EZ

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 30.000 €

Dirulaguntzak emanen dira deialdi honetan onuradun izateko ezarritako betekizunak eta proiektuaren baldintzak betetzen dituzten eskabideak aurkeztu ahala, eta, betiere, eskabideari erantzuteko aurrekontu-kontsignazioa egon bitartean. Dirulaguntzak emateko, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko du.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 40/17211/780000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: a) Diruz lagundutako inbertsioak gutxienez 2.000 eurokoa izan beharko du.

b) Diseinu- edo ingeniari-tz-lanek ezin izanen dute izan instalazioaren kostu osoaren % 10 baino gehiago.

c) Dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez ere organo kudeatzaileak diruz laguntzeko modukoa jotzen duen gastuaren % 50 izanen da, eta gehienez ere kopuru hauek joko ditu eskabide bakoitzeko:

- 2.000 euro, b.1 (BANAKAKO AUTOKONTSUMOA) motako instalazioetarako.

- 4.000 euro, b.2 (AUTOKONTSUMO PARTEKATUA) motako instalazioetarako.

4. Hainbat urtetarako deialdia: BAI EZ

Hainbat urtetarako deialdia izanez gero, hainbat urtetako gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

| | | | | | |
|----------------------|----------|-------------|---|-------------|---|
| Aurtengo zenbatekoa: | 30.000 € | 2. urtekoa: | € | 4. urtekoa: | € |
| 1. urtekoa () | € | 3. urtekoa: | € | | |

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezin debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta atal honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: BAI EZ

Dirulaguntzaren onuradun izateko honako berariazko betekizun hauek bete beharko dira:

a) Autokontsumora bideratutako higiezinaren jabea izatea.

b.1 MOTA (BANAKAKO AUTOKONTSUMOA): higiezinaren jabeak egin behar du eskaera, eta hortaz, onuraduna haren jabea izanen da.

b.2 MOTA (AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOA): autokontsumoaren onuradun izanen diren jabeek egin behar dute eskaera; eta autokontsumoetako bat eraikineko zerbitzu komuntetarako bada, Jabeen Erkidegoak.



BANAKAKO EBALUAZIOA

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

BAI EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) puntuari esker diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta letra honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

BAI EZ

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jardura edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izan behar da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jardura / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzeko beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: BAI EZ

Xede-epea: 5 urteko gutxieneko epea

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

BAI EZ

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskerak non aurkeztu:

Dirulaguntzetarako eskaerak honako toki hauetan aurkeztu ahal dira: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean (Kondestablearen jauregia, Kale Nagusia 2, behean), erregistro osagarrietan, edo, bestela,



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan.

2. Eskaerak aurkezteko epea: Eskaerak eta koadro honetako G.4 puntuan galdatutako agiriak aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2021eko urriaren 31ra bitartekoa izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak interesdunak edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik aurkeztutako eskabide bidez egin behar dira, deialdi honen I. eranskinetako ereduarekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) puntuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztatik aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordeztuzko adierazpen bat aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nor eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, ez badira bete bost urte baino gehiago agiriari dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

- Pertsona fisikoa bada, NANaren edo agiri baliokidearen kopia.
- Jabeen Erkidegoa bada, erkidegoaren estatutuak eta lehendakariaren NANA.
- Pertsona juridikoa bada, IFKren edo agiri baliokidearen kopia.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrek zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta



BANAKAKO EBALUAZIOA

egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkarteren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarreak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). BAI EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

1. Lortu nahi den egoera.

2. Sortzeko elementuen eta sistemen deskribapena (horien fitxa teknikoa erantsiko da)

3. Biltegitarte-elementuen eta -sistemen deskribapena, halakorik badago.

4. Kontrolerako sistemen eta metodologiaren deskribapena.

5. Inbertsioen aurrekontua kontzeptuen arabera xehatua, eta horrek eskatzen dituen instalazio osagarriak.

6. Autokontsumo partekatua kasuan AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOKO ENERGIA PARTEKATZEKO AKORDIOA erantsiko da, banatze-portzentajeak zehaztuta.

g) Jarraian zehaztutako agiriak eskatuko dira, dirulaguntza zer TIPOLOGIARako eskatu eta horren arabera:

b.1 MOTA (Banakako autokontsumoa):

- Higiezinaren titulartasunaren gaineko erregistroko ohar soila edo hura eskuratu izanaren eskritura publikoak, eskatzailea higiezinaren jabea dela egiaztatzen dutenak.

- Zatiketa horizontala duten eraikinen kasuan, eraikinen jabeen akordioa, onuradunari baimena ematen diona instalazioa eraikineko elementu komunetan egiteko.

b.2 MOTA (Autokontsumo kolektiboa):

- Eskatzailea Jabeen Erkidego bat izaki, eraikinen ohar soila.

- Higiezinaren titulartasunaren gaineko erregistroko ohar soila edo hura eskuratu izanaren eskritura publikoak, erkidegoko kide guztiak jabeak direla egiaztatzen dutenak.

- Autokontsumo kolektiboko energia banatzeko akordioa, banaketa-koefizienteak zehaztuta eta onuradun guztiak sinatuta.

- Eraikineko jabeen akordioa, onuradunari baimena ematen diona instalazioa eraikineko elementu komunetan jartzeko.

- Autokontsumo partekatuak barne hartzen badu eraikineko zerbitzu komun hornidura, puntu hori onartzen duen Jabeen Batzordearen erabakia aurkeztuko da.

h) Transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea, udalaren webgunean dagoena, dirulaguntzaren zenbatekoa zein banku-kontutan sartu behar den jakiteko.

i) Agiri horiei gehitu beharko zaizkie koadro honen Ñ.1 zenbakian eskatutako EGIAZTAGIRIAK.

Errolda-agiriari dagokionez, Udalak ofizios egiaztatuko du eskatzaileek Iruñeko erroldan izena emana dutela, eta, hartara, eskabidea aurkezteak berak berekin ekarriko du Iruñeko Udalak datu horiek guztiak



BANAKAKO EBALUAZIOA

ofizioz egiaztatzeko baimena, deialdi honetan jasota dagoenarekin bat.

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) puntuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea kontuan harturik, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Ebatzi eta jakinarazteko epea 2021eko abenduaren 31n amaituko da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: BAI EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: BAI EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: BAI EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) puntuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz lagundu ahalko dira:

Autokontsumorako energia elektriko fotovoltaikoa sortzeko instalazioetan egindako inbertsioak, betiere honako hauek badira bakarrik:

- elementu sortzaileak
- ainguraketa eta euste sistema
- inbertsoreak
- kableak eta babesgarria



BANAKAKO EBALUAZIOA

- bateriak
- ingeniari- eta/edo legalizazio-lanak, baina ezin izanen dute instalazioaren kostu osoaren % 10 baino gehiago izan.
Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen (2.2) puntuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: BAI EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xedea izanen:

- Inbertsioaren ondorioz sortutako finantza-gastuak.
- Berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

BAI EZ

Ehunekoak: % 50 bitarte

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

BAI EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.



N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa. Dirulaguntza behin onuradunek galdatutako egiaztagiriak aurkeztu eta gero ordainduko da.

Konturako ordainketa:

Ordainketa zatikatua:

Ordainketa aurreratua:

Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde zuzenaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

BAI EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

Justifikazio-kontua:

Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat). Nahitaezko ekintza da. Dirulaguntza dela-eta egindako gastu guztiak justifikatuta. Fakturak eta froga-balio baliokidea duten gainerako agiriak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatu ahal izateko.

Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: BAI EZ

Justifikazio-kontu erraztua:

Gastuen egiaztapena, moduluka (Ordenantzaren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

Beste sistemaren bat:

Onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Gastua justifikatzeko fakturak eta egindako jarduketan ordainketa justifikatzen duen dokumentazioa.



Justifikazio-agiriak jatorrizkoak izanen dira. eta fotokopiak aurkeztuz gero, zerbitzu kudeatzaileak behar bezala konpultsaturik aurkeztu beharko dira.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kutzako tiketak.

Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFK, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena, zigilua, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzailearen sinadura.

b) Instalazioaren eta horren osagaien argazkiak.

c) Obretako erantzukizunpeko adierazpena.

d) Instalazioa 15/2018 Errege Lege Dekretuan xedatutakoarekin bat legezaturik dagoela ziurtatzeko agiriak.

e) Autokontsumorako instalazioa hala isolatuta nola sare elektrikora konektatuta badago, zerbitzuan jarri izanaren akta edo instalazioaren erregistro-zenbakia aurkeztu beharko dira, kasuan-kasuan dagokionaren arabera eta honako agindu honekin bat tramitatua: 60/2015 Foru Agindua, martxoaren 5koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilariak emana, industria segurtasunaren arloko erregelamenduzko arauak bete behar dituzten instalazioen titularrek eta agenteek jarraitu beharreko prozedura arautzen duena, segurtasun-baldintzak betetzen dituztela frogatzeko.

f) Horretaz gain, autokontsumoko instalazioek aurkeztu beharko dute energia elektrikoaren autokontsumoko administrazio-erregistroko inskripzio-zenbakia edo, bestela, erregistro horretan izena emateko egindako eskariaren kopia, bat etorrita energia elektrikoaren autokontsumoko hornidura- eta ekoizpen-modalitateen baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituen urriaren 9ko 244/2019 Errege Dekretuarekin edo aplikagarri den arauarekin.

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Eskabidearekin batera, onuradunek egindako inbertsioak justifikatu beharko dituzte, betiere horretarako epemuga 2021eko urriaren 31 dutela. Horretarako, Ñ.1. puntuan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZIOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 45. artikuluan eta letra honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: BAI EZ



P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

- **Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak aztertuko ditu onuradunek aurkeztutako agiri frogagarriak, eta gauzatutako inbertsioaren egiaztapen materiala eginen du.**
- **Organo kudeatzaileak deialdi honen babesean emandako dirulaguntzen segimendu- eta kontrol-lanak eginen ditu, onuradunek bertan eskatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen dituztela egiaztatze aldera. Hori horrela, onuradunek Iruñeko Udalaren Energia Agentziari baimena eman beharko diote instalazio fotovoltaikoaren funtzionamendudatuetan sartzeko.**

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

ERANSKIN OSAGARRIAK.